

Espediente mota: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Zerbitzu kontratua, prozedura irekia

BERMEOKO UDALAREN, BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA BERUALAREN JAKINARAZPENAK BANATZEAREN ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea hau da: Herri barruan Bermeoko Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Berualaren gutunak, propaganda, jakinarazpenak eta bandoak banatzearen zerbitzua.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honen iraupena urte biko izango da.

Kontratua urtez urte luzatu egin daiteke, alderdi biek batera horrela erabagitzen badabe, beti ere, jatorrizko kontratua amaitu baino arinago. Kontratuak, luzapenak barne, gehienez, 4 urte iraun daiteke.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu mota honen izaerarekin bat etorritz, ez da prezio osoa finkatzen, ezpada kontratua osatzen duten unidadeena. Unidade bakotzaren prezioa, parte hartzaileek finkatuko dute euren proposamenen bidez.

Banakako prezioak, zatikapen honen arabera aurkeztu beharko dira:

1.- Hartze sigilu bako 1-20gr. arteko karten banaketa herrian.....	0,37
2.- Hartze sigilu bako 21-50gr. arteko karten banaketa herrian.....	0,47
3.- Hartze sigilu bako 51-100gr. arteko karten banaketa herrian.....	0,78
4.- Hartze sigilu bako 101-200gr. arteko karten banaketa herrian.....	1,08
5.- Hartze sigilu bako 201-350gr. arteko karten banaketa herrian.....	1,46
6.- Hartze sigilu bako 351-1000gr. arteko karten banaketa herrian.....	1,72
7.- Hartze sigilu bako 1001-2000gr. arteko karten banaketa herrian.....	3,82
8.- Sastar-batze zerbitzuko ordainagirien banaketa herrian.....	0,37
9.- Udaltzaingoaren eskumeneko isunen jakinarazpen ziurtatuak herrian.....	2,52
10.- Tributuzko jakinarazpen ziurtatuak herrian.....	2,52
11.- Administraziozko jakinarazpen arruntak herrian.....	2,52
12.- Auzoetako jakinarazpenak.....	2,95

13.- Propaganda, programak eta helbide bako bestelako banaketak herrian.....	0,05
14.- Posta-etxera/tik eroan-ekarriak.....	80 €/hilero
15.-Bando arruntak.....	0,35
16.- Premiazko Bandoak.....	0,50

Halanda be, kontratu honen prezio estimatua, 175.000 eurotan finkatzen da, kontratuaren iraupen osorako, prorrogak barne.

4. HIZKUNTZA

Bermeoko herriaren ezaugarriak kontutan izanda, herritarrekiko harremanetan, esleipenduna, euskaraz zuzenduko da beti, hauek kontrakorik azaltzen ez duten bitartean.

Hori dela eta, esleipendunak euskara jakin beharko du eta, baldintza hau betetzera behartuta geratzen da.

5. FAKTURAZIOA

Esleipendunak, Udalean hilabeteen emandako zerbitzuarengatik kobrantza-agiri egokia aurkeztu beharko du hurrengo hilabeteko lehenengo bost egunetan.

Faktura bakoitzean, emandako zerbitzuak bereizturik agertuko dira, udaleko zein sailak eskatu duen zerbitzua adieraziz.

Fakturan jasotako banakako prezioak, kontratuan finkatutakoekin bat etorriko dira.

6. JAKINARAZPEN ADMINISTRATIBO ARRUNTAK

Jakinarazpen mota hau udal espediente administratibo bateri lotuta dagoena da.

Jakinarazpen hauek herri barruan eginikoak izango dira, bai herriko kaleetan eta baita auzoetan ere.

7. JAKINARAZPEN ADMINISTRATIBO ZIURTATUAK

Jaso izanaren adierazpena eraman behar diren jakinarazpenak dira hauek, eta Prozedura Administratibo Orokorra arautzen duen 39/2015 Legearen 42.2 artikulua dioenaren arabera burutu beharko dira.

8. LANAREN AGINTZEA

Idazkaritza sailak emango du Bermeoko Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Berualaren jakinarazpenak egitearen agindua.

Jakinarazpenak, Idazkaritza saileko arduradunak emango dizkio esleipendunari, taldeka bananduta eta talde bakoitza zerrendatuta.

Aldizkako epemuga duten kitapenei buruzko jakinarazpen arruntak ez dira zerrendatutako eman beharko, banatu beharreko jakinarazpenen kopurua soilik zehaztea nahikoa izanik.

9. BANAKETA BURUTZEKO EPEAK

Jakinarazpen ezberdinak burutzeko epeak hauek dira:

1.- Jakinarazpen administratibo arruntak, zerrendarekin doazenean: esleipendunak jaso eta hurrengo 24 ordutan.

2.- Jakinarazpen administratibo arruntak, banatu beharreko jakinarazpenen kopuruaz lagunduta doazenean: esleipendunak jaso eta hurrengo 15 egunen barruan.

3.- Jakinarazpen administratibo ziurtatuak: esleipendunak jaso eta hurrengo 48 ordutan.

10. LANAREN KONTROLA

Lanaren kontrola Idazkaritza saileko funtzionario arduradunak burutuko du.

Kontrola, egin beharreko lanaren zerrendan jakinarazpena burutu deneko data jarritz burutuko da.

Jakinarazpen administratibo ziurtatuen berezitasuna kontutan izanda, jakinarazpena egiteko lehenengo saiakeran lortzen ez bada berau burutzea, esleipendunak, hurrengo hiru egunen barruan eta beste ordu batetan, ahalegin barri bat egin beharko du, kontutan edukita, lehenengo saiakera goizez egin bada, bigarrena arratsaldean egin beharko dala, eta aldrebes.

Eta hori guztia, 7. atalean aitatutako 39/2015 Legearen 42.2 artikulua bat:

“2. Cuando la notificación se practique en el domicilio del interesado, de no hallarse presente éste en el momento de entregarse la notificación, podrá hacerse cargo de la misma cualquier persona mayor de catorce años que se encuentre en el domicilio y haga constar su identidad. Si nadie se hiciera cargo de la notificación, se hará constar esta circunstancia en el expediente, junto con el día y la hora en que se intentó la notificación, intento que se repetirá por una sola vez y en una hora distinta dentro de los tres días siguientes. En caso de que el primer intento de notificación se haya realizado antes de las quince horas, el segundo intento deberá realizarse después de las quince horas y viceversa, dejando en todo caso al menos un margen de diferencia de tres horas entre ambos intentos de notificación”.

Egindako saiakeren gaineko datuak, jakinarazi beharreko idazkian bertan islatuko dira.

11. BETEBEHARRAK

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta euren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badute, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute.

Lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta euren erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

Bestalde, banaketaren antolaketa egokia bermatzeko, lehiatzaileek bulegoa eduki beharko dabe Bermeoko Udalerrian.

Azkenik, lehiatzaileak kreditatu behar du 43/2010 Legeak aipatzen dituen baimenak badituela.

12.- BESTELAKO BALDINTZAK

Baldintza agiri honetan jasotzen ez dan guztirako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen dauan 3/2011 EDLa aplikatuko da zehatz eta, subsidiarioki, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuz onartutako, bestelako zuzenbide administratiboko lege orokorrak eta, azkenik, zuzenbide pribatuko lege orokorrak.

Bermeon, 2018ko urtarrilaren 23an.